



## HEZKUNTZA BEREZIKO HEZITZAILEAK eta IRAKASLE LABORALAK

### LAN KONTRATUAK AMAITUTAKOAN KALTE ORDAINEN ERREKLAMAZIOA

**Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak** ezagutzera eman duen ebazpen baten arabera, **behin behineko kontratu bat amaitzen duzunean, jaso behar duzun kalte ordaina 20 egun/urtekoa izan behar da.**

Hau da, **ordezkapen kontratuak edota obra eta zerbitzu jakineko kontratuak (bakantedunak barne)** amaitzen dituzunean, Administrazioak ordaindu behar dizun kalte ordaina 20 egun/urtekoa izan behar da eta egun, berriz, 12 egun/urtekoa edo ezer ez du ematen. Beraz, **pasa den 15/16 ikasturtean kontratu mota horiek izan badituzu, erreklamazioak jartzen hasteko dei egiten dizugu.**

Kontuan hartu behar da, Europako ebazpen hau pasa den urteko irailekoa dela eta Hezkuntza Bereziko Hezitzaileak langile laboralak garela. Beraz, azken urtebeteko kalte ordainak soilik erreklama daitezke.

Erreklamazioak jarri ahal izateko, **gurekin harremanetan jar zaitez**, ohiko moduan. Denbora garrantzitsua da, eskubideak galdu daitezke eta.

#### **Erreklamazioak jartzeko behar diren agiriak:**

- 15/16 ikasturteko kontratuen fotokopiak eta 16/17 ikasturte honetan **bukatu** dituzuenak.
- Kontratu horien finikitoak agertzen diren nominen fotokopiak.
- Kontratu horien uzte-agiriak (cese). *Baldin badituzu, hauek beti ez dituztelako ematen*
- Bizitza laborala.



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus